

# HONDARRIBIKO UDALA

## EUSKARA SUSTATZEKO PLAN

### ESTRATEGIKOA (2023-2027)

## 2024ko otsaila



HONDARRIBIA

elhuyar  
ezagutuz aldatzea



## AURKIBIDEA

1	SARRERA .....	2
2	PROZESUAREN HELBURUAK .....	4
	2.1. Helburu nagusia .....	4
	2.2. Helburu zehatzak .....	4
	2.3. Zeharkako helburuak.....	4
3	PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK.....	5
	3.1 Egiturak .....	5
	3.2. Lan-prozedura .....	6
4	DIAGNOSTIKOA .....	7
	4.1. Sarrera .....	7
	4.2. Datu kuantitatiboak .....	7
	4.2.1. Euskararen ezagutza/gaitasuna .....	7
	4.2.2. Euskararen erabilera/elkarreragina.....	9
	4.3. Datu kualitatiboak.....	13
	4.3.1. Gobernantza .....	13
	4.3.2. Jarrerak/motibazioak .....	13
	4.3.3. Ezagutza/gaitasuna .....	13
	4.3.4. Erabilera/elkarreragina.....	14
	4.3.7. Azken urteetako lorpen eta zailtasun nagusiak.....	15
	4.3.8. Indarguneak eta ahuleziak .....	15
	4.3.8. Erronkak eta epe motzean eragin beharreko eremuak .....	15
	4.4. Ondorioak .....	16
5	HONDARRIAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (2023-2027).....	17
	5.1. Nahi estrategikoa .....	17
	5.2. Misioa .....	17
	5.3. Ikuspegia .....	17
	5.4. Planaren ardatz estrategikoak, erronkak eta lan-ildoak .....	18
	5.4. Ardatz estrategikoen araberako ekintzak .....	19
	5.4.1 Gobernantza .....	19
	5.4.2 Jarrerak/Motibazioak .....	20
	5.4.3 Ezagutza/Gaitasunak .....	21
	5.4.4 Erabilera/Elkarreragina .....	22
	5.4.5 Komunikazioa .....	23
	5.5. Gobernantza eta antolaketa .....	24
6	BALORAZIOA.....	25

## 1 SARRERA

Hondarribiko biztanleriaren gehiengoak euskalduna da. Tamalez, erabilera ez dator bat euskara-gaitasunarekin. Erabilera-datu kezagarriek, gainera, bat egin dute euskalgintzaren itzalaldiarekin eta Euskara Sustatzeko Planaren indarraldiaren amaierarekin. Hori dela-eta, une egokia dirudi Hondarribiko Udalak —eragileekin eta herritarrekin batera— normalizazioaren bidean egitekoaz gogoeta egiteko eta euskara sustatzeko proposamenak adosteko.

Horiek horrela, Hondarribiko Udalak datozen urteetarako Euskararen Plan Estrategikoa (ESEP) diseinatu nahi izan du eta lan hori egiteko laguntza eskatu zion Elhuyarri. Plana egiteko erabilitako prozesua baliagarria izan da plana diseinatzeko ez ezik, geldialdi bat egiteko eta eguneroko dinamikatik harago begiratzeko; egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, egindako pausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egoeraren diagnostikoa egiteko.

Halaber, une hau, abagune aproposa izan da jauzi kualitatiboak egiteko. Esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeak, edota euskararen garapenaren aldeko lanean ari diren elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzeak.

Plan guztietan egiten den moduan, oinarri edo markoa zehaztea garrantzitsua izaten da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu berri duen AROA markoa hartu dugu oinarri Hondarribiko Euskararen Plan Estrategikoa gauzatzeko. AROA gizarte honen beharrei erantzun nahi dien marko estrategikoa da, eta balio nagusi hauek ditu: **adostua**, **egingarria** eta **eragingarria** izatea. **Hizkuntza-ekologiaren** begiradatik **aniztasuna** kudeatzea (eleoniztasuna; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna). **Justizia soziala** eta **gizarte-inklusioa** erdiesteko baliabideak sortu nahiz erraztea, horretarako, **zeharlerrotasuna**, **lankidetzaren** eta **partehartze koordinatua** lehenetsiz.

Elkarlanerako proposamen markoa da, eta hamarkada baterako jomuga nagusiak zein izango diren zehazten du:

1. Edozein dela ere herritarren egoera, euskaraz gehiago eta errazago ikasteko aukerak handitzea.
2. Eskolaz kanpoko ekosistema euskaldunagoa lortzea gazteek hezkuntzaz harago euskara gehiago eta hobeto ikasi nahiz erabil dezaten. Aisialdian eta kirolean euskarak leku nabarmen handiagoa izan dezan lortzea, hain zuzen.
3. Ingurune digitalean euskarak leku gehiago izatea eta hizkuntza teknologien bidez euskaraz komunikatzeko aukera handiagoak lortzea. Ingurune digitalean, edukiak euskaraz sortu eta kontsumitzeko aukerak handitzea.
4. Eremu sozioekonomiko publiko zein pribatuan euskaraz lan egiteko aukerak ugartzea. Euskaraz ikasitako neska-mutil gazteek lan munduan euskara erabiltzen jarraitzeko aukeretan sakontzea.
5. Euskarazko edukiak sortu eta kontsumitzeko aukerak ugartzea. Ingurune digitalean bezainbat, beste edonolako testuingurutan, euskarazko edukiak sortu eta zabaltzeko baliabideak ugartu eta kontsumitzaileen aktibazioan eragitea izango da gako nagusia.

Horiei guztiei heltzeko **kudeaketa koordinatua eta partekatua** oinarritzen den gobernantza ereduak proposatzen du. Hondarribiko kasuan ere herritarrekin egindako prozesu parte-hartzailean landu da gobernantza ereduak, eta planean zehaztutako ekimenak aurrera eramango dituen egitura berria planteatu da.

Aroak zazpi ardatzen gainean lan egitea proposatzen du, eta honako hau da, beraz, AROAren arlo operatiboa:

ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
<b>GOBERNANTZA</b>		
<p><b>G.1.</b> Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.</p> <p><b>G.2.</b> Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.</p> <p><b>G.3.</b> Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.</p> <p><b>G.4.</b> Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.</p>		
JARRERAK / MOTIBAZIOAK	EZAGUTZA / GAITASUNA	ERABILERA / ELKARRERAGINA
<p><b>JM.1.</b> Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta - portaeretan eragin.</p> <p><b>JM.2.</b> Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.</p>	<p><b>EG.1.</b> Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.</p> <p><b>EG.2.</b> Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.</p> <p><b>EG.3.</b> Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.</p> <p><b>EG.4.</b> Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.</p>	<p><b>EE.1.</b> Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.</p>
<b>BERRIKUNTZA</b>		
<p><b>B.1.</b> Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.</p>		
KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA	
<p><b>IS.1.</b> Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.</p>	<p><b>KH.1.</b> Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.</p>	

Euskara ardatz duten politikak bultzatu nahi ditu AROAK. Besteak beste, horrek dakar konpromiso politikoak hartzea, hizkuntza-politikaren erronkak egitura guztietan aplikatzea, sailen konpartimentazioa gainditzea, lankidetzat modu berrietan esploratzea...

Izan ere, euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun hitzun kopurua igotzea da hurrengo erronka nagusia, eta horrekin batera, komunitatea handitu eta sendotzea.

Marko zabal hau Hondarribiko izaera, behar, helburu eta ahalmenenei egokitzeko ahaleginaren emaitza da esku artean duzuen txostena. Bertan jaso da burututako prozesuaren oinarria, egindako ibilbidea eta iritsitako ondorioa.

Marko berri honen ikuspegia hurrengo hamarkada osoari begirakoa da, eta halaxe jaso dugu Hondarribiko Euskararen 2023-2027 Plan Estrategiko honetan ere. Planaren iraupena 5 urtekoa izango da, baina marko berriak ezartzen dituen eta aurreraxeago zehaztu ditugun ikuspegiak, misioak eta nahi estrategikoak irismen luzeagoa izango dute, eta hurrengo bosturtekoari dagokion plan estrategikoan indarrean izango dira.

## 2 PROZESUAREN HELBURUAK

### 2.1. Helburu nagusia

Hondarribiko euskara sustatzeko Plan Estrategikoa diseinatzeko (AROA marko estrategikora egokituta) lan-prozesuaren helburu nagusia honakoa izan da: datozen urteetako Hondarribiko euskara sustatzeko erronkak eta lan-ildoak adostea, herritarrekin batera, eta antolamendu-ereduari buruzko gogoeta partekatua egitea.

### 2.2. Helburu zehatzak

- Aurreko lanaren balantzea egitea eta ondorioak ateratzea: esparru estrategikoetan garatu diren ekintzen oihartzuna eta eragina baloratzea, ondo egindakoak identifikatzea eta hutsuneak edo hobetzekoak atzematea.
- Ikuspegi anitzeko balorazioa egitea, Udaleko eta udalerriko eragileen bidez.
- Eragileek euskararen egungo egoeraren diagnostikoa egitea.
- Hondarribiko Euskararen Plan Estrategikoa (2023-2027) diseinatzeko ildo estrategikoak zehaztea.
- Euskara sustatzeko antolamenduaren inguruko hausnarketa egitea.

### 2.3. Zeharkako helburuak

- Prozesuan inplikaturako pertsonen euskararen egoeraren inguruko hausnarketa egitea eta egoeraz jabetzea.
- Euskararen Plan Estrategikoa modu kolektiboan eta adostuan egitea.
- Gizarteko sektore ahalik eta gehien inplikatzeko eta parte hartuko duten eragile guztien artean harreman berriak sortzea; elkarlanerako aukera berriak eta sinergiak lantzeko bideak urratzea.
- Desberdinen arteko lankidetzatik, udalaren hizkuntza-politikaren aitzindaritzaren hartzea eta lidergoa partekatzea.
- Prozesuan parte hartuko duten pertsonak euskararen inguruan sentibilizatzea eta trebatzea, Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko giro eta jarrera egokiak sortuz.
- Herritarrak, eragileak eta erakundeak aktibatzea eta proiektu partekatu baten parte izatea.
- Euskararen aktibazioan eragingo duten aliatuak topatzea eta euren arteko sarea sortzea.
- Euskararen aldeko babes soziala indartzea.
- Iritziak, kezkek eta esperientziak trukatzeko, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, era berean, herritarren partaidetzarako metodologia, tresna eta teknikak eskuratuz eta lan-prozesuetan nahiz bitartekoetan eraginkortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegia txertatuz.

### 3 PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

#### 3.1 Egiturak


2023-2027 Plan Estrategikoaren diseinurako honako egitura hauek osatu ditugu:

TALDE ERAGILEA	
Partaideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaleko ordezkari teknikoa</li> <li>• Udaleko ordezkari politikoak</li> <li>• Elhuyar Aholkularitzako teknikariak</li> </ul>
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesua teknikoki eta metodologikoki zehaztu eta martxan jarri.</li> <li>• Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jaso eta trukatu.</li> <li>• Hausnarketa Batzordearen egitura osatu eta martxan jarri.</li> <li>• Galdetegia diseinatu eta emaitzak aztertu.</li> <li>• Planaren segimendua eta ebaluazioa zehaztu.</li> <li>• Prozesuan zehar sortzen diren dokumentuak onetsi (Planaren zirriborroari ekarpenak egin).</li> <li>• Komunikazio Plana ontzat eman eta garapena bermatu.</li> <li>• Prozesuari segimendua egin, sortu daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak bilatu eta neurri zuzentzaileak ezarri.</li> <li>• Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egin eta aurrera begirako urratsak zehaztu.</li> </ul>

HAUSNARKETA-BATZORDEA	
Partaideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hondarribiko herritarrak, eragilea (kirol-elkarteak, ikastetxeak, merkatariak, euskara-elkarteak...)</li> <li>• Erreferentziazko norbanako eta herritarrak</li> <li>• Elhuyar Aholkularitzako teknikariak</li> </ul>
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egungo erradiografia osatu.</li> <li>• Bisioa eta misioa definitu.</li> <li>• Datozen urteetarako erronka estrategikoak identifikatu.</li> <li>• Erronkei aurre egiteko estrategiak eta ekintzak zehaztu.</li> <li>• Plana garatzeko egituraz eta antolamenduaz gogoeta egin.</li> </ul>

### 3.2. Lan-prozedura

Honako hau izan da euskara sustatzeko ekintza-plana diseinatzeko eta garatzeko emandako urratsen eskema:



## 4 DIAGNOSTIKOA

### 4.1. Sarrera

Atal honetan Hondarribian euskararen egoera nolakoa den laburbiltzen duten datu orokorrak jaso dira, baita herritarren eta herriko eragileen iritziak ere.

Diagnostikoaren fasea funtsezkoa da, batetik, egungo egoera soziolinguistikoaz jabetzeko, eta, bestetik, indarguneak nahiz hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko.

Egoeraren diagnostikoa egiteko zenbait iturritan oinarritu gara, besteak beste, Hondarribiko datu soziolinguistikoetan, egungo egoerari eta jardueri buruzko informazioa ematen diguten askotariko dokumentazioan, eta herritarren iritzietan.


Beraz, jarraian, datu kuantitatiboez haratago, irakurketa kualitatiboa ere egin da eta egungo egoeraren indarguneak eta ahuleziak jaso dira.

### 4.2. Datu kuantitatiboak

#### 4.2.1. Euskararen ezagutza/gaitasuna

Euskararen egoera neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusiak euskararen ezagutza eta erabilera dira. Adierazle horiek une jakin bateko egoera ez ezik, denboran izandako bilakaera ematen digute.

Hondarribiko hiztunen euskara-gaitasunari dagokionez<sup>1</sup>, % 64,2 euskaldunak dira, %13,3 euskaldun hartzailleak (euskara ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak dituztenak), eta % 22,5 erdaldunak.




<sup>1</sup>Euskara-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika). Euskararen Adierazle Sistema.



Ondorengo taulan jaso den bezala<sup>2</sup>, sexuaren arabera desberdintasunak ez dira esanguratsuak.

	Euskaldunak		Euskaldun hartzaiak		Erdaldunak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
<b>Gizonezkoak</b>	5.154	49%	1.116	51%	1.873	51%
<b>Emakumezkoak</b>	5.412	51%	1.077	49%	1.834	49%

Adinari<sup>3</sup> erreparatuz gero, herriko haur eta gazteen artean gehiengoa euskalduna da. Adinean gora joan ahala, baina, egoera bestelakoa da; gehiago baitira erdaldunak edo euskaldun hartzaiak.




Euskara-gaitasunaren bilakaera orokorra aztertuz<sup>4</sup>, urtez urte euskaldunen kopuruak gora egin duela ikus daiteke. Euskaldun hartzaielen kopuruak ez du gorabehera handirik eduki, eta erdaldun-kopurua gutxitu egin da.

<sup>2</sup>Euskara-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika). Euskararen Adierazle Sistema.

<sup>3</sup>Euskara-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika). Euskararen Adierazle Sistema.


<sup>4</sup>Euskara-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika). Euskararen Adierazle Sistema.



Bestalde, euskalduntzeari begira, Hondarribiko udal euskaltegian prestakuntza-eskaintza zabala dago, aurrez aurre zein online. 2022-2023 ikasturte hasierako matrikulazio-datuei erreparatuz, 192 pertsona zeuden matrikulatuta, hauetatik 153 aurrez aurreko modalitatean eta 39 online modalitatean.

#### 4.2.2. Euskararen erabilera/elkarreragina

Hizkuntzen kale-erabilerari dagokionez, 2021ean Soziolinguistika Klusterrak<sup>5</sup> egindako neurketan oinarrituta, euskararen kale-erabilera % 16,3koa zen, eta elkarrizketa gehienak (% 75,3) gaztelaniaz ziren.



Ezagutza-datuak eta erabilera-datuak ikusita, komeni da erabilera isotropikoa; hots, euskararen ezagutza kontuan izanda matematikoki espero daitekeen euskararen erabilera, aipatzea.


Soziolinguistika Klusterraren arabera<sup>6</sup>, % 33koa da baldintza hipotetiko horietan Hondarribiko euskararen erabilera isotropikoa (edo espero daitekeen erabilera), kontuan izanik udalerriko

<sup>5</sup> Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Soziolinguistika Klusterra, 2021.


<sup>6</sup> Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Soziolinguistika Klusterra, 2021.

biztanleen euskaldunen ehunekoa % 63,7koa dela. Hori horrela, 2021ean behatutako erabilera erreala (% 16,3) matematikoki espero daitekeen erabilera baino baxuagoa da.

Bestalde, 2021eko erabilera-datuak 2016ko kale-neurketako datuekin alderatuz gero<sup>7</sup>, bost urtetan 8 puntuko beherakada egon da Hondarribiko kaleetan euskararen erabilerari dagokionez.




Sexu aldagaiari erreparatuta<sup>8</sup>, Hondarribiko emakumeek (% 16,90) euskara gizonek (% 15,60) baino zertxobait gehiago erabiltzen dute.



<sup>7</sup> Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Soziolingustika Klusterra, 2021.

<sup>8</sup> Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Soziolingustika Klusterra, 2021.

Adinaren arabera datuei erreparatu gero<sup>9</sup>, euskararen kale-erabilera datu altuenak 2-14 eta 25-44koen artean daude (euskararen kale-erabilera % 37,40koa eta % 20,30ekoa da, hurrenez hurren). 15-24koen artean, berriz, datu baxuenak (euskararen kale-erabilera % 9,80a da).




Hondarribiko euskararen kale-erabilera eremu geografiko desberdinekin, hain zuzen, Euskal Herriarekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin, Gipuzkoarekin, Bidasoa Beherearekin eta Hondarribiari dagokion gune soziolinguistikoarekin (3. gunea<sup>10</sup>) alderatuta<sup>11</sup>, honakoa da irudia.


<sup>9</sup> Hizkuntzen erabilaren kale neurketa. Soziolinguistika Klusterra, 2021.

<sup>10</sup> 3. gune soziolinguistikoan sailkatzen dira % 50 - % 80 euskaldun dentsitatea duten udalerrak (Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020)

<sup>11</sup> Hizkuntzen erabilaren kale neurketa. Soziolinguistika Klusterra, 2021.



Azkenik, lehen hizkuntzari eta etxeke erabilerari dagokionez<sup>12</sup>, Hondarribian lehen hizkuntza euskara dutenak edo euskara eta gaztelania (biak) dutenak % 50,11 dira (8.526 herritar) dira. Etxeko erabilerari erreparatuz, euskara edo biak erabiltzen dituztenak % 47,53 dira (8.087 herritar).



<sup>12</sup> Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuen, lehen hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2021

### 4.3. Datu kualitatiboak

Datu kuantitatiboen irakurketaz harago, egungo errealitatearen diagnostiko kualitatiboa egiteko, bi galdetegi sortu dira.

Galdetegi bat Hondarribiko zenbait eragile, elkarte eta pertsona erreferenteei bidali zaie, hain zuzen, guztira 20 pertsona/eragileri, eta 8 erantzun jaso dira. Honez gain, gazteen iritzia ere jaso nahi izan denez, gazteen artean galdetegiaren zabalkundea egin da eta beste 10 erantzun jaso dira.

Elkarrizketetatik eta udaleko informazio-iturrietatik jasotakoa ondorengo azpi-ataletan antolatu da:

#### 4.3.1. Gobernantza

Galdetegia erantzun dutenen arabera euskara sustatzeko ahaleginean eragile nagusia udala da, baina ezinbestekotzat jotzen da herriko beste eragileekin (euskalgintza, aisialdia, kirola, hezkuntza, merkataritza...) koordinazioa eta lankidetzak ere.

#### 4.3.2. Jarrerak/motibazioak

Galdetegia erantzun dutenei hondarribiarrek euskararekiko duten kezka buruz galdetzean, iritzi desberdinak daude. Zenbaitek uste du hondarribiarren artean badela kezka; baina gazteen artean ia erdiek uste dute hondarribiarrek ez dutela euskararekiko kezkarik.

Gazteen gehiengoak euskararen egoera deskribatzeko honako adjektiboak erabiltzen ditu, oro har, negatiboak: *bultzada beharrekoa, tamalgarria, ahula, nahiko ona, arduratzekoa, kaxkarra, ona baina kezkgarria adin txikikoekin, kaxkarra, nahiko txarra, maldan behera...*

Hala, herriko eragileen eta norbanakoen iritzari erreparatuz, lehenasunez kotzat jo da euskararen aldeko jarrerak areagotzea eta hizkuntza-ohitura nahiz -portaeretan eragitea. Hain zuzen ere, funtsezkoa dela adierazi da, Hondarribian euskarak bizi duen egoeraren kontzientzia hartzea ez ezik, euskaraz bizi ez diren herritarrek euskarara erakartzea ere.

#### 4.3.3. Ezagutza/gaitasuna

Datu kuantitatiboekin bat dator galdetegia erantzun dutenen pertzepzioa ere, eta gehienak kontziente dira euskararen ezagutza handia dela eta erabilera, aldiz, oso baxua. Hainbatek adierazi dute beharrezkoa dela herritarrei azaltzea euskararen egoera Hondarribia zein den, eta kontzientzia piztu beharra azpimarratu da.

Hezkuntzari dagokionez, hezkuntza formaleko etapa guztiak (Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino) euskaraz egiteko aukera baldin badago ere, bada hezkuntza-eskaintza B ereduan duen ikastetxe bat herrian.

#### 4.3.4. Erabilera/elkarreragina

Egunerokotasuneko euskara-erabilerari buruz galdetzean, gehienek euskara erabiltzen dute etxean, kalean, lagunartean edo lanean. Aldiz, tabernetan edota elkartean gutxiago erabiltzen dutela adierazi dute, eta horren arrazoiaz galdeginda, hizkuntza-ohiturak eta solaskideak (taldeen kasuan batzuetan pertsona jakin baten) euskaraz hitz egiteko duen gaitasun-falta adierazi dituzte. Gazteek ere adierazi dute hizkuntza-ohituren eraginaz harago, erraz egiten dutela salto gaztelerara.

Gaur-gaurkoz, euskararen erabileran eragiteko asmoz, Hondarribian Mintzapraktika egitasmoak martxan daude, hala nola *Mintzapoza* eta *Gurasolaguna*. Baita familia barruan nahiz hezkuntza-esparruan euskara sustatzeko egitasmo<sup>13</sup> ugari ere, besteak beste:

EGITASMOA	HELBURU NAGUSIA	HARTZAILEAK
Elkarrizketa musikatuak	Gazteen artean euskararen erabilera areagotzea eta harreman sare euskaldunak zabaltzeko eta indartzeko ekimena. Ikasleak ikastetxetik eskualdeko/herriko aretora hurbildu eta bertan bi euskal artista ezagutzen dituzte.	DBH (12-15 urte) eta Batxilergoko ikasleak (16-18 urte).
Euskararen Kriseilua	Familia barruan eta familia artean euskararekiko sentsibilizazioa handitzea eta erabileran urratsak ematea.	Adin-tarte desberdinetako familiek.
Gu ere Bertsotan	Helburua ikasleen artean euskararen erabilera maila eta kalitatea handitzea da, bertsoarako zaletasuna pizteaz gain.	Talaia, Ama Guadalupekoa eta Egiluze ikastetxeetako LH 4 eta 5eko ikasleak.
Zergatik ez tailerrak	Euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko tailerrak.	DBH ko 3-4. mailako ikasleak eta Batxilergoko 1. mailako ikasleak.
Hezten aisialdia	Jolasen bidez (jolas garaian aprobetxatuz) ikastetxeetako ikasleen artean euskararen erabilera handitzea.	HH 4,5 eta LH 1,2.
Harrera programa	Ikasle etorkinei errefortzu eskolak eskaintzen zaizkie zaizkio euskaraz komunikatu ahal izateko gutxieneko maila lortu dezaten.	DBH 1-4

Herritarren iritziei erreparatuz, aisialdian euskara bultzatzearen beharra azpimarratu da, eta askok diote planak hor eragin beharko lukeela (kirolean, eskolaz kanpoko jardueretan...).

Gainera, gazteen arabera planaren helburuetako batek beharko luke jendea eroso sentitzea euskaraz aritzerakoan, eta ez dezala gaztelerara jo beldurraren edo ziurtasun-gabeziaren ondorioz. Bada lan-arloan eragin beharra aipatu duenik ere.

Bestalde, behin baino gehiagotan errepikatu da ingurune digitalean euskarak duen presentzia txikia eta horrek gazteengan duen eragina, baita euskarazko erreferenteak sortzearen beharra ere.

<sup>13</sup> <https://www.hondarribia.eus/eu/ikastetxeetako-programak>

#### 4.3.7. Azken urteetako lorpen eta zailtasun nagusiak

Begirada azken urteetara jarriz gero, lorpen gisa aipatu dira, besteak beste, gazteen artean euskara zabaltzea eta belaunaldi berriek euskara erabiltzea, euskararen erabilera sustatzeko martxan jarri diren ekimenak, edota euskal hiztunek beren egoera prekarioaren kontzientzia hartzea.

Zenbait zailtasun ere identifikatu dituzte, ordea; hala nola, gaztelaniak duen izaera menderagarriaren aurrean euskara-erabilerari tinko eutsi beharra, nortasun ideia galdu izanaren sentsazioa, gazteek dituzten ereduak...

#### 4.3.8. Indarguneak eta ahuleziak

Hondarribian euskarak une honetan dituen indarguneak eta ahuleziak adierazteko eskatu zaie galdetegia erantzun dutenei. Ondorengo taulan laburtu ditugu elementu nagusiak:

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxea, kiroldegia, kirol-taldeak, dendarak...</li> <li>- Txikitatik hasita Hondarribian euskara ikastea eta erabiltzea posible da.</li> <li>- Euskaraz hitz egiteko modu berezia eta euskalki propioa edukitzea</li> <li>- Euskara batuaren erabilerak gora egin du, adin jakin bateko jendeak euskara ikasi du eta erabileran ikusten da.</li> <li>- Euskal hiztunen masa nahikoa.</li> <li>- Heldu askoren kontzientzia</li> <li>- Euskararen ezagutza handia (uste baino jende gehiagok daki).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Geroz eta kanpoko jende gehiago egotea</li> <li>- Gazteleraren presentzia</li> <li>- Herriko hizkera propioa ez baloratzea</li> <li>- Gazteen gaztelaniarako joera</li> <li>- Turismo-sektorea</li> <li>- Eremu digitalak (<i>youtube, influencerrak...</i>) gazteengan duen eragina</li> <li>- Ostalaritza</li> <li>- Erabilera ez dator bat ezagutzarekin.</li> </ul>

#### 4.3.8. Erronkak eta epe motzean eragin beharreko eremuak

Jarraian, galdetegia erantzun dutenen arabera epe motzean heldu beharreko erronkak jaso dira.

Iritziak askotarikoak badira ere, gehienek uste dute haur eta gazteengan eragin behar dela ezinbestean, adibidez, ekintza kulturaletan tokia emanez edota kirol arloan begirale eta entrenatzaile guztiei euskara erabilaraziz.

Familia ere eragin-eremu garrantzitsuenetako bat dela adierazi da, eta, hortaz, transmisioa indartzea eta etxeko erabilerari eustea datozen urteetako erronka nagusienetako bat izango da.

Beste erronketako bat Hondarribira bizitzera datozen bizilagun berriak euskarara erakartzea litzateke, hala nola, euskara ikasteko laguntzak eta erraztasunak eskainiz. Funtsean, euskara bizitzako eremu guztietan presente behar duela adierazi da, hala nola kalean, etxean, eskolan, kirolean, kultur ekitaldietan, lanean, bizitza sozialean...



#### 4.4. Ondorioak

Jarraian, diagnostikoan oinarrituta eta diagnostikoa bera Hondarribiko zenbait herritar eta eragileekin kontrastatu eta aberastu; eta, hala, Hondarribiko euskararen egoeraren argazki bat egin ostean, zenbait ondorio mahaigaineratuko ditugu.

Hasteko, euskarak herrian bizi duen egoera dela-eta, zenbait adierazle kezkarri daudela esan genezake. Hala nola, erabilera datu baxuak, galdetegia bete duten pertsonen kopuru txikia, herriko euskalgintzaren eta eragileen parte-hartze eta dinamika ahula...

Datu kuantitatiboei buruz hitz egiten dugunean; zehazki, euskararen ezagutza eta erabilera datuei buruz, hizkuntzen gaitasun erlatiboa aintzat hartzea komeni da. Hau da, nolabait, euskaraz nork dakien edo nork ez hartu beharrean, euskaraz nor moldatzen den gaztelaniaz/frantsesez baino hobeto. Hori horrela, Hondarribiko datu zehatzik ez badugu ere, herriko euskararen egoeraz hitz egiten dugunean komenigarria da errealitate hau presente izatea.

Ildo beretik, euskararen erabileran faktore ugari eragiten dute, besteak beste, ingurune soziolinguistikoak, herrian hizkuntzak duen prestigioak, norbere harreman-sareak, hizkuntza-ohiturek... Hondarribiko egoerari erreparatuz, funtsezkoa da euskararen aldeko diskurtsoak lantzea eta herritarrak sentsibilizatzea.

Diagnostikoko emaitzen arabera, plan honek eragin beharreko eremu garrantzitsu bat helduen kontzientziazioa izango litzateke, eta euskararen aldeko jarrera areagotzeko eta hiztunen ahalduntzea eta hizkuntza-ohitura zein portaeretan eragiteko lan-ildoak zehaztu beharko dira.

Zalantzarik gabe, kontuan izan beharreko beste eragin-eremu bat haur eta gazteen hizkuntza-ohiturak eta aisialdia dira. Horregatik, hain zuzen, beharrezkoa da herri mailan euskaraz egiteko aldeko giroa eta eroso aritzeko dauden gune sozio-funtzionalak indartzea edota gune berriak sortzea.

Hori horrela, plan estrategiko honen funtsa, besteak beste, Hondarribiko herritar, eragile, elkarte eta erakundeak aktibatzea eta saretzea izan beharko litzateke. Hala, elkarrekin, eguneroko dinamikatik harago begiratu, eta etorkizunera begira jarraitu beharreko norabidea elkarrekin irudikatzeko eta pausoak gauzatzeko balio behar luke planak.

Gainera, euskara sustatzeko ekintza-plan hau ez litzateke udaleko Euskara Zerbitzuarena soilik izan behar, lidergo partekatua behar du. Beraz, euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eramateaz gain, esparru instituzional zein sozialean koordinazioa eta lankidetzaren bermatzeko egiturak aintzat hartu beharko dira aurrera begira.

## 5 HONDARRIAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (2023-2027)

### 5.1. Nahi estrategikoa

Hondarribian euskarak prestigioa irabaztea eta euskararen erabilera areagotzea; herriko eragileak saretu eta aktibatzearekin batera.

### 5.2. Misioa

Hondarribiko eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko, eta Hondarribia euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatu eta egokituko da plana, metodologia parte-hartzaile eta irekia baliatuz, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

### 5.3. Ikuspegia

Planaren ikuspegi nagusia, datozen hamar urteei begira, hauxe da:

- Hondarribian Euskararen transmisioa bermatuko da.
- Hondarribiko gizarte esparru guztietan euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbilduko dira modu naturalean.
- Behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak emateaz gain, euskara haiena ere badela sentituko dute.
- Euskaraz bizitzeko aukerak zabalagoak izango dira; euskarak babesguneak izango ditu herri osoan.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izango dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egingo da.
- Euskararen ezagutza areagotuko da, ia herritar guztiek jakingo dute.

5.4. Planaren ardatz estrategikoak, erronkak eta lan-ildoak

ARDATZ ESTRATEGIKOA	ERRONKA	LAN-ILDOAK	EKIMEN KOPURUA
GOBERNANTZA	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman eta berariazko zein zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan.	G.1.1. Eremu sozial eta instituzionala koordinatzea; herria saretzea eta herri-pertenentzia euskaratik lantzea.	3
		G.1.2. Hizkuntza-politika berezituak garatzea eta euskara sustatzeko plan sektorialak egitea.	5
JARRERAK MOTIBAZIOAK	JM.1. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.	JM. 1.1 Herrian euskarak prestigio handiagoa izatea eta euskaldunen komunitatea sendotzea.	4
	JM.2. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.	JM. 2.1. Herrian euskararen aldeko kontzientzia sortzea eta hiztun ahaldundua erdiesteko bidea egitea.	8
EZAGUTZA GAITASUNAK	EG. 1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin	EG. 1.1. Transmisioan eragitea; euskararen eta herriarekiko maitasunaren transmisioa berreskuratzea.	2
	EG. 2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu	EG 2.1. Euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea	3
ERABILERA EKARRERAGINA	EE. 2. Euskaraz bititzea arrunta izango den gune sozio-funtzionalak indartu eta berriak sortu.	EE 2.1. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza izateko aukeretan eragitea; bai sektore publikoan, bai pribatuan.	3
		EE 2.2. Aisialdian, kirolean, kultura-esparruan... euskarazko eskaintza bermatu eta euskararen erabilera orokortu	7
		EE 2.3. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi	4
		EE 2.4. Bereziki 16 urtetik beherako herritarrak lehenetsi esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan	4

5.4. Ardatz estrategikoen araberako ekintzak

5.4.1 Gobernantza

ERRONKAK	LAN-ILDOAK	EKIMENAK	ARDURADUNAK	2023	2024	2025	2026	2027	
<b>G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eramane eta berariazko zein zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan.</b>	G.1.1. Eremu sozial eta instituzionala koordinatzea; herria saretzea eta herri-pertenentzia euskaratik lantzea.	Plan Estrategikoaren jarraipenerako egitura bat sortu eta egonkortu	Udala		x	x	x	x	
		Kirol elkarteak inplikatuz, Kirol Mahaia osatu eta euskara zeharka landu	Udala eta herriko kirol-elkarteak		x	x	x	x	
		Herrian dauden askotariko eragileak identifikatu eta sailkatu	Udala eta herriko eragileak		x	x	x	x	
	G 1.2. Hizkuntza-politika bereziatuak garatzea eta euskara sustatzeko plan sektorialak egitea.	Aisialdiko ekimenetara (kirola, begiraleak...) bideratzen diren dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatu	Udala				x	x	x
		Kirol-elkarteetan euskara-planak egiteko bidea aztertu	Udala, Talde Eragilea eta herriko kirol-elkarteak				x	x	x
		Elkarte gastronomikoetan euskara-planak egiteko bidea aztertu	Udala, Talde Eragilea eta herriko elkarte gastronomikoak					x	x
		Lehentasunez, Amuitz eta ostalaritza-elkartean eragin	Udala, Amuitz eta ostalaritza-elkartea			x	x	x	x

5.4.2 Jarrerak/Motibazioak

ERRONKAK	LAN-ILDOAK	EKIMENAK	ARDURADUNAK	2023	2024	2025	2026	2027
<b>JM.1. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.</b>	JM 1.1 Herrian euskarak prestigio handiagoa izatea eta euskaldunen komunitatea sendotzea.	Herriaren sarreran eta leku zehatzetan “Hondarribia herri euskalduna” gisako kartelak jarri.	Udala, UEMA		X			
		Udal-kanpaina abian jarri, herrian erreferente diren pertsonekin. (Itxeki/barra-barra kanpaina)	Udala, Talde Eragilea		X	X	X	X
		Turismoa: euskara autentikoa dela jabetzeko estrategiak landu	Udala, Talde Eragilea				X	X
		Euskararen aldeko herri mailako diskurtsoa landu eta herrian sozializatu	Udala, Talde Eragilea		X	X	X	X
		Bideo laburra grabatu, herriko pertsona ezagunekin, mezu erakargarri jakin bat zabaltzeko	Udala eta Talde Eragilea				X	X
		Euskara erabiltzen duenari edo/eta euskara ikasi dutenei aitortza egin	Udala eta Blagan				X	X
<b>JM.2. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.</b>	JM 2.1. Herrian euskararen aldeko kontzientzia sortzea eta hiztun ahaldundua erdiesteko bidea egitea.	Euskaraz eroso eta segurtasunez aritzeko eta kontzientzia hartzeko ahalduntze-ikastaroak (TELP gisakoak) eskaini	Udala eta Blagan				X	X
		Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan bultzatzeko eta gazteei eduki soziolinguistikoak eskaintzeko Zergatik ez? tailerrak	Udala eta herriko ikastetxeak	X	X	X	X	X
		Euskaraz artatzen duten saltoki, zerbitzu eta abarrei aintzatespena egiteko ikurra sortu eta maiztasun jakin batekin sare sozialetan hedapena egin.	Udala, Amuitz eta ostalaritza-elkartea		X	X	X	X
		Hondarribiar izaera hizkuntzarekin uztartu. Gizarte aktibatze kanpaina bat antolatu, belaunaldien arteko jarraipena erakutsiz.	Udala eta Talde Eragilea			X	X	X

5.4.3 Ezagutza/Gaitasunak

ERRONKAK	LAN-ILDOAK	EKIMENAK	ARDURADUNAK	2023	2024	2025	2026	2027
EG. 1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin	EG. 1.1. Transmisioan eragitea; euskararen eta herriarekiko maitasunaren transmisioa berreskuratzea.	Ikastetxeetan zinema euskaraz eskaintzea Tinko programaren bidez	Udala eta herriko ikastetxeak	X	X	X	X	X
		Haurrentzako liburu eta diskoak banatu, haurrek etxean euskarazko materiala izan dezaten (Zuhaitz Eguna)	Udala eta herriko ikastetxeak	X	X	X	X	X
EG. 2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu	EG 2.1. Euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea	Euskaltegian ikasten ari direnentzat bekak bermatu		X	X	X	X	X
		Udako euskara errefortzua		X	X	X	X	X
		Taberna, merkatari eta abarrei laguntzak eskaini (euskara errazago ikasteko erraztasunak eman, klase praktikoak <i>in situ</i> , ordutegiak egokitu, dirulaguntzak eman...) euren langileek euskara ikas dezaten					X	X

5.4.4 Erabilera/Elkarreragina

ERRONKAK	LAN-ILDOAK	EKIMENAK	ARDURADUNAK	2023	2024	2025	2026	2027	
<b>EE. 2. Euskaraz bizitza arrunta izango den gune sozio-funtzionalak indartu eta berriak sortu</b>	EE 2.1. Euskaraz lan- eta zerbitzu-hizkuntza izateko aukeretan eragitea; bai sektore publikoan, bai pribatuan.	Enpresei errotulazioa eta webgunea euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak eman	Udala	x	x	x	x	x	
		Euskararekin identifikatzen duen errotulazio berezia (pegatinak...) sortu saltokiak, zerbitzuak, ostalaritzako negozioak... identifikatzeko eta lehen hitza euskaraz egiteko.	Udala eta Blagan		x	x	x	x	
		Udalean Euskararen Plan Estrategikoa eta Erabilera Plana onartu eta bete	Udala		x				
	EE 2.2. Euskarazko babesguneak indartzeko eta berriak sortzeko, aisialdian, eremu digitalean, hedabideetan, kirolean, kulturaren... euskarazko eskaintza bermatu eta euskararen erabilera orokortu	Kirol- eta kultura-elkarteetan euskararen erabilera bultzatzen laguntzeko bilerak aktibatu.	Udala eta Talde Eragilea		x				
		Taldeetan borondatez itzulpenak egiteko prest dauden pertsonak identifikatu	Udala eta Talde Eragilea				x	x	
		Gazteak elkartzeko topaguneak sortu (adibidez, Sainduan)	Udala, Talde Eragilea, Saindua				x	x	x
		Olinpiadak indartzea euskaraz erdigunean kokatuz	Udala, Talde Eragilea eta Mugiri				x	x	x
		Kirol-entrenatzaileek euskaraz ezagutu erabil dezaten trebakuntza eskaini	Udala, Talde Eragilea, Uema			x	x	x	x
		Tokiko euskarazko hedabideak bultzatu	Udala	x	x	x	x	x	
		Euskarazko ikus-entzunezkoak eta eduki digitalak bultzatzeko estrategiak eta bideak aztertu	Udala eta Talde Eragilea					x	x
		Mintzapraktika egitasmoak gauzatu (Mintzalaguna, Gurasolaguna)	Udala	x	x	x	x	x	
	EE 2.3. Belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi	Euskararen Kriseilua egitasmoa urtez urte gauzatzea	Udala, herriko ikastetxeak	x	x	x	x	x	
		Gurasoen aktibazioerako estrategiak garatu (tailerrak, hitzaldiak...)	Udala eta Talde Eragilea				x	x	
		Bideoak egin aitona-amonak bilobekin euskaraz ari direla erakutsiz.	Talde Eragilea					x	x
		Euskarazko jarduerak bultzatu udan: Udajolas eta Udabentura.	Udala eta herriko ikastetxeak	x	x	x	x	x	
		Ipuin Kontalariak eskaini liburutegian	Udala	x	x	x	x	x	
		Jolasen bidez ikasleen artean euskararen erabilera handitzeko "Hezten" programa.	Udala eta herriko ikastetxeak	x	x	x	x	x	

### 5.4.5 Komunikazioa

ERRONKAK	LAN-ILDOAK	EKIMENAK	ARDURADUNAK	2023	2024	2025	2026	2027
K.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xedetaldeak identifikatu eta bakoitzaren egokiena den komunikazio-estrategia aplikatu.	K.1.1 Plan Estrategikoa garatzerakoan, berariaz landutako komunikazio-estrategiak aplikatu eta barne- zein kanpo-komunikazioa bermatu	Zeharka, beharrezkoa ikusten den ekintza guztietan komunikazio-ekintzak egin	Udala eta Talde Eragilea	X	X	X	X	X



### 5.5. Gobernantza eta antolaketa

AROA marko berrian zehaztuta datorrenez, «Aroaren nahiari erantzuna emateko egituratze eta lankidetzaren eredu propio bat proposatzen da. Gobernantza eredu jakin bat behar dugu, zeharkakotasunean eta parte-hartze koordinatuan oinarritutakoa, eta era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena. Euskara zerbitzuek edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea».

Planaren garapena, beraz, zeharkakotasunetik eta parte-hartze koordinatutik bideratu beharra dago.


Hondarribiaren kasuan, hausnarketa-batzordeak irudikatu duen egitura Talde Eragileak eta lantaldeek osatuko dute.

Talde Eragilea talde iraunkorra izango da, aldizkakotasun jakin batekin elkartuko dena (urtean hiru bilera egingo direla aurreikusi da). Udalari eskatzen zaio talde honen koordinazioa eta trakzio-lana egitea, eta plana gauzatzearen eta jarraipena egitearen ardura nagusia esleitu zaio.

Herriko eragileen ordezkariak eta norbanakoek osatutako taldea izango da. Eragile bakoitzak zer rol jokatu beharko duen aztertu beharko da, hala nola, ikastetxeak, euskara-elkartea, kirol-taldeak, ostalaritza-elkartea...

Talde Eragileak abian jarriko ditu 2024an garatzeko aurreikusi diren ekintzak. Horretarako, alabaina, beharrezko ikusten diren egiturak aktibatuko dira: landuko den gaiaren arabera lan-mahai eta foroak deituko dira, hau da, lantalde sektorialak. Lantalde hauek arlo operatiboan egingo dute lan (proiektu bakoitzeko lantalde bat irudikatu da), Talde Eragileak finkatu dituen estrategiak aintzat hartuta.

## EGITURA



## 6 BALORAZIOA

Balorazioa etengabekoa izan da prozesu osoan zehar, baina arreta berezia jarri diogu prozesuaren amaieran.

Batetik, Hausnarketa Batzordeko kideei prozesua baloratzeko eskatu genien. Eta oro har, balorazioa oso ona izan da. Hona batezbesteko emaitzak (5 puntuko oinarrian):

Prozesuan zehar lanerako giroa egokia izan al da?	4,9
Gaia lantzeko modua gustatu al zait?	4,4
Parte-hartzea zabala eta anitza izan al da?	4,1
Ekarpen interesgarriak egin al dira?	4,5
Prozesuan parte hartzeak asetu al nau?	4,3

Alderdi indartsuen artean honakoak azpimarratu dituzte: udalaren inplikazioa, herritarrek lanerako erakutsi duten gogoia, pertsonen arteko iritzi-trukaketa, parte-hartzea, informazio argia eta zehatza ematea, saioen dinamika... Eta hobetzekoan artean, berriz: parte-hartzea areagotzea, prozesua iruditan jasotzea, sareetan zabaltzeko, beste eremu batzuetako eta beste adin-tarte batzuetako jendearen ordezkariak bermatzea... aipatu dira.

Bestetik, otsailaren 19ko Talde Eragilearen bileran, Elhuyarreko teknikariek eta ordezkari tekniko zein politikoak prozesuaren balorazio xehea egin dugu. Bertan, honako ideiak nabarmendu dira:

- Hausnarketa Batzordeetako dinamikekin eta bileren garapenarekin lotuta, oso saio eraginkorrak eta emankorrak izan direla nabarmendu da. Jarrera oso ona erakutsi dute parte hartu dutenek, eta egoerari buelta emateko gogoia nabari da, nolabait, alarma gorria piztu da. Teknikariek saioetan erabilitako dinamizazio-teknika eta tresnak positiboki baloratu dira.
- Prozesu osoan zehar ordezkari politikoek nahiz ordezkari teknikoek erakutsitako jarrera eta inplikazioa azpimarratu ditugu.
- Prozesuaren norabideari eta emaitzari dagokionez, helburuak bete dira. Metodologia eta denboralizazioa zehatza izateak lagundu egin du, ez da informazioa bidean galdu, eta jarraikortasun horrek baldintza egokiak sortu ditu emaitzara iristeko. Hobetzeko gisa, betetako galdetegi kopurua eskasa izan dela esan daiteke, eta aurrerago indar berezia egingo da alderdi kualitatibo hori indartzeko.

Eta, azkenik, alderdi teknikoan, berriz, honako hauek baloratu ditugu:

- Aurreko ESEParen markotik AROA marko berrira jauzia oso modu naturalean egin da. Marko berriak malgutasun handia ematen duenez, prozesu parte-hartzailean herritarrek eta eragileek proposatutako erronkak eta ekimenak sailkatzeko bide ematen du, eta gainerako Herri Administrazioek egingo dituzten planekin bateragarria izango da Hondarribikoa ere. Halaber, hurrengo plana diseinatzeke bide ematen du, gainera.
- Talde eragilean izan diren euskara-teknikariak eta euskara-zinegotziak aktiboki hartu dute parte, prestutasun osoa eskaini dute eta laguntza eman diete aholkulariei, behar izan duten guztietan. Prozesuak aurrera egin dezan ezinbestekoa izan da erakutsi duten jarrera.
- Hausnarketa-batzordean parte-hartu duten herritar eta eragileen kopurua oso ona izan da. Deitutako guztiak etorri ez badira ere, bertaratuak asko izan dira; eta ekarpen ugari eta

askotarikoak egin dituzte. Deialdia zinegotziak egin izanak parte-hartzaileak animatzerakoan lagundu duelakoan gaude.

- Parte-hartzeari dagokionez, bestalde, gazteen hutsunean nabarmendu da. Gazteek parte har dezaten saiakera egin da modu askotan (hurbilekoak izan daitezkeen pertsonak deitu dira, eta Herri Olinpiadetako batzordera, mintzapraktika egitasmoko Mintzakuadrillen taldera, Psilocybeko ingurunera edota Talaia institutuko euskara-batzordeko ikasleengana zuzenean jo da), baina saiakera horrek ez du emaitzarik izan. Beharbada lan-saioetara deitu baino, eurengana hurbiltzea eraginkorragoa izango dela ondorioztatu da.
- Hausnarketa Batzordeetatik eratorritako den emaitza ere oso ona izan da. Batetik, Hondarribiko Euskararen 2023-2027 Plan Estrategikoa zehaztuta gelditu delako, lehentasunak ongi zehaztuta dituela, planean jasota geratu diren ekimenak bideratu behar dituzten arduradunak adierazita, eta denboralizazioa ere finkatuta gelditu delako. Bestetik, Plana aurrera eramango duen gobernantza-egiturak ere forma hartu duelako, eta egitura horren ezaugarriak definituta gelditu direlako.